

Industriaren negozio-zifrak % 18,2 egin zuen behera 2020an, Euskal AEn

Bizkaia izan zen 2020an COVID-19aren pandemiaren ondoriozko kaltetuen, Arabarekin eta, bereziki, Gipuzkoarekin alderatuta, haien beherakada moderatuagoa izan baitzen

2020an, COVID-19aren pandemia hasi zen urtean, neurri murriztaileenak hartu zirenean, industriaren jarduerak kalte handia jasan zuen, eta, hala, % 18,2ko beherakada izan zuen haren negozio-zifrak, Eustatek dituen datuen arabera.

COVID-19aren ondorioak adierazle ekonomiko guztietan antzeman ziren. Hasteko, enpleguan Euskal AEko industrian **lanean ari den pertsona kopuruak** % 3 egin zuen behera eta, beraz, azken urteotako joera positiboa hautsi zen. Enplegatuak, guztira, 200.699 izan ziren, 2019an baino sei mila pertsona inguru gutxiago, bost urtez gora egiten jardun ondoren.

Industria-sektoreak –barnean sartzen dira manufaktura-industria, erauzketa-industriak, energia elektrikoa, gasa eta lurruna eta ur- eta saneamendu-hornidura– **11.172 establezimendutan** garatu zuen jarduera, guztira, aurreko urtean baino % 1,4 gutxiago.

Negozio-zifra 49.005 milioi eurokoa izan zen, 2020an, prezio arruntetan. Diru-sarreraren bolumen hori 2019koa baino % 18,2 baxuagoa da, eta zifrarik baxuena, 2005etik. Aldi berean, langileen gastuak % 5,3 jaitsi ziren, aurreko urtearekin alderatuta, eta lan egindako ordu kopurua % 8,7 murriztu zen.

Balio erantsi gordina faktore-kostuetan adierazle makroekonomikoa da, eta ondasun eta zerbitzuen ekoizpen osoaren balio ekonomikoa adierazten du, ekoizpen horretarako beharrezkoak izan diren intsumoak kenduta. 2020an, Euskal AEko industria-sektoreak sortutako balio erantsi gordina 13.073 milioi eurokoa izan zen, 2019an izandakoa baino % 14,5 baxuagoa, eta, hala, hazkuntzako sei urteko aldia eten zen; adierazle horrek 2015ean erregistratutako antzeko zifrak izan ditu.

Euskal AEko industriaren adierazle ekonomiko nagusiak, lurralde historikoaren arabera (mila €). 2020

	Euskal AE	2020-2019 (gehiguntza %)	Araba/Álava	2020-2019 (gehiguntza %)	Bizkaia	2020-2019 (gehiguntza %)	Gipuzkoa	2020-2019 (gehiguntza %)
Pertsona enpleguak NU	200.699	-3,0	41.647	-2,9	78.754	-3,3	80.298	-2,9
Negoio kopurua	49.005.694	-18,2	11.788.747	-16,3	20.627.150	-21,3	16.589.797	-15,4
Balio Erantsi Gordina faktore-kostuetan	13.073.105	-14,5	2.884.055	-13,4	4.877.746	-17,3	5.311.304	-12,4
Pertsonal gastuak	8.829.580	-5,3	1.835.896	-5,8	3.423.202	-5,0	3.570.482	-5,3
Itxurazko lan- produktibitatea	65,1	-11,8	69,3	-10,8	61,9	-14,5	66,1	-9,8
Pertsonal-kostuak pertsonako	44,0	-2,3	44,1	-3,0	43,5	-1,8	44,5	-2,5
Soldaten arabera doitutako lan- produktibitatea (%)	148,1	-9,8	157,1	-8,1	142,5	-13,0	148,8	-7,6


Iturria: Eustat. Industriaren gaineko inkesta

2020an, Euskal AEko industria-sektoreak enplegatu bakoitzeko 65.138 euroko **itxurazko lan-produktibitatea** –ekoizpen-prozesuari aplikatutako lan-unitate baten errendimendua– erregistratu zuen, 2019koa baino % 11,8 baxuagoa, eta **pertsona bakoitzeko langile-kostuak** 43.994 eurokoak izan ziren, aurreko urtekoak baino % 2,3 baxuagoak. Bi adierazle horiek batzen badira, **soldataren arabera doitutako lan-produktibitatearen ratioa** lortzen da, eta hark adierazten du zenbat balio erantsi eskuratzen den enplegatu bakoitzeko, batez besteko kostuak kontuan hartuta. 2020ko balioa % 148,5ekoa da, edo, beste modu batera esanda, balio erantsiko terminoetan lortu zen enplegatu bakoitzeko kostuen balioa halako 1,48. Adierazle hori 2013ko % 152,9aren eta 2008ko % 180,9aren artean izan da, eta % 9,8 egin du behera 2020an, 2019aren aldean.

Zifra horiekin bat etorriz, **ustiapenaren emaitza**, edo Irabazia Interes eta Zerga aurretik, % 47,9 jaitsi da. Kontzeptualki, ustiapenaren emaitzak adierazten du enpresa batek galerak edo irabaziak dituen ekitaldi baten amaieran, haren jarduerari dagokionez. Mardula bada ere, 2020an ustiapen-emaitzaren beherakada 2009an erregistratutakoaren (–% 50) antzekoa da edo 2013koaren (–% 51,3) antzekoa.

Euskal AEko industria sektoreko balio erantsi gordina faktore-kostuetan, lurralde historikoari jarraiki

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat. Industriaren gaineko inkesta

Lurralde-analisia

Pandemiaren ondorioz lehen urtean hartutako neurriek hiru lurraldeetan izan dute eragin nabarmena, baina ez modu berean.

Adierazle nagusiak kontuan hartuta, Bizkaia izan da lurralde kaltetuena, eta Gipuzkoa izan da, nolabait, krisi horri hobekien aurre egin diona.

Bizkaian, industria-enpleguak % 3,3 egin du behera, eta % 2,9 Araban eta Gipuzkoan; ondorioz, lan egindako ordu kopuruak % 9 egin du behera Bizkaian, % 8,7 Araban eta % 8,3 Gipuzkoan. Industria-establezimenduei dagokienez, zifra % 1,9 murriztu da Bizkaian, % 1,2 Araban eta % 1 Gipuzkoan. Gainera, langileen gastuek jaitsiera handiagoa izan dute Araban (% 5,8), Gipuzkoan eta Bizkaian baino (% 5,3 eta % 5, hurrenez hurren).

Negozio-zifraren zenbatekoak nabarmen egin du behera hiru lurraldeetan, baina Bizkaian izan du, kasu honetan ere, beherakadarik nabarmenena; izan ere, aurreko urtean baino % 21,3 gutxiago fakturatu da, eta galera Araban % 16,3koa eta Gipuzkoan % 15,4koa izan da.

Emitza negatibo horiek, logikoa denez, industriak lurralde bakoitzean sortutako balio erantsi gordinen antzematen da. Hala, 2020an 2019an baino % 17,3 baxuagoa izan da Bizkaian, % 13,4 baxuagoa Araban eta % 12,4 baxuagoa Gipuzkoan. Itxurazko lan-produktibitatea enpleguaren arabera neurtuta ikusten da, honetan ere, Bizkaia eta Gipuzkoa direla muturretako lurraldeak: Bizkaian, produktibitatearen galera % 14,5koa izan da, eta Gipuzkoan, % 10ekoa (% 9,8); Araban tartean da, eta batez besteko produktibitatea % 10,8 murriztu da bertan.

Gainerako adierazleetan ez bezala, Bizkaian izan dute enplegatuko kostuek doikuntza baxuena; izan ere, % 1,8 murriztu dira, eta Gipuzkoan % 2,5 eta Araban % 3. Hori gorabehera, Bizkaian pertsonako batez besteko kostua hiru lurraldeetako baxuena da, 43.467 eurokoa, eta, Araban, 44.082 eurokoa eta Gipuzkoan, 44.465 eurokoa. Bizkaian enplegatuko batez besteko kostuen murrizketa txikienak ez du balio erantsiaren galera handiagoa konpentsatzen; beraz, soldaten arabera doitutako lan-produktibitatearen koefizientea lurralde horretan batez besteko kostuen % 142,5ekoa da, eta Gipuzkoan % 148,8koa eta Araban % 157,1ekoa.

Analisi sektoriala


Gure autonomia-erkidegoko sektore nagusiak, balio erantsiaren terminoetan, 2020an, honako hauek izan ziren: *Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoen salbu, Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa eta Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura*. Hiruretan gainditu dira, nabarmen, mila milioi euroak balio erantsian, eta, lehen kasuan, baita bi milioi euro ere. *Produktu metalikoen fabrikazioaren* sektoreak berak bakarrik Euskal AEko industriaren balio erantsi osoaren % 20 metatzen du, eta aipatutako hirurek batera guztizkoaren % 40 gainditzen dute (% 41,1).

Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren horniduraren sektorea nabarmendu behar da; izan ere, industriaren balio erantsi osoaren % 10,1 da bertako enplegatuak % 1,1 izanik; *Produktu metalikoen fabrikazioaren eta Makineria eta ekipoen fabrikazioaren* ehunekoak haien balio erantsiarekin bat datoz, neurri handiagoan (% 25,3), bai eta enplegatu kopuru osoarekin (% 11,1) ere.

Kontuan hartu beharreko balio erantsiak dituzten beste sektore batzuek (guztiak industriaren guztizkoaren % 6tik gora) honako hauek dira: *Kautxu produktuen eta plastikoen fabrikazioa* (% 7,4); *Metalurgia, burdinazko, altzairuzko eta burdin aleaziozko produktuen fabrikazioa* (% 7,4); *Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdiatoiaren fabrikazioa* (% 6,3), eta *Elikaduraren, edariaren eta tabakoaren industria* (% 6,2). Kasu guztietan, enpleguaren ehunekoak haien balio erantsiekin bat datoz: % 6,8, % 7,9, % 6,1 eta % 7,4, hurrenez hurren.

Bestalde, gure erkidegoko industriaren azpisektoreak askotarikoak dira. Izan ere, honako hauek konbinatzen dituzte: batetik, eskulanaren itxurazko produktibitatea duten eta langileen batez besteko kostu baxuak dituzten jarduerak (besteak beste, *Ehunen industria, janzkiak egitea, larruaren eta oinetakoen industria; Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreprodukzioa eta Egurraren eta artelazkiaren industria, altzariak izan ezik; otargintza eta espartzugintza*) eta, bestetik, adierazle beretarako balio nabarmen altuagoak dituzten beste jarduera batzuk. Besteak beste, honako sektore hauek betetzen dituzte ezaugarri horiek: *Beste garraio material baten fabrikazioa, Industria kimikoa, Ura hartu, araztu eta banatzea, Botiken fabrikazioa eta Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura*.

Industriako sektoreak, balio erantsi gordineko partaidetzaren eta enplegu osoaren arabera (%). 2020



Iturria: Eustat. Industriaren inkesta

2020an, azpisektoreen barruan itxurazko lan-produktibitatea honako balio hauen artekoa izan da: 27 mila euro enplegatu bakoitzeko, *Ehunen industria, janzkiak egitea, larruaren eta oinetakoen industriaren* kasuan, eta 611 mila, *Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren horniduraren* kasuan.

Honako sektore hauek ere izan dute itxurazko lan-produktibitate altua, besteak beste: *Ura hartu, araztu eta banatzea* eta *Botiken fabrikazioa*; lehenengoak pertsonako 100 mila euro baino gehiagoko produktibitatea gairatzen du, eta bigarrena 200 mila euro ingurura iristen da.

Itxurazko lan-produktibitate oso baxuarekin bat, *Ehunen industria, janzkiak egitea, larruaren eta oinetakoen industriak* (27.087 euro pertsonako) eta *Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreproduzioaren* sektoreak (34.300 euro) langileen batez besteko kostu baxuenak erregistratu dituzte (19.701 euro eta 27.684 euro enplegatuko, hurrenez hurren).

Enplegatuko langileen batez besteko kostua 83.033 euro izan da enplegatu bakoitzeko *Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren horniduraren* kasuan; altuena izan da sektoreen artean. Esan bezala, sektore horrek ere itxurazko lan-produktibitate altuena ere erregistratu du, eta *Ura hartu, araztu eta banatzea* sektorearekin eta *Botiken fabrikazioarekin* batera, soldaten arabera doitutako lan-produktibitatearen maila handiena erregistratu dute (% 206,1 eta % 303,2, hurrenez hurren), eta, *Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren horniduraren* kasuan, % 735,7koa.

Bestalde, *Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioaren* sektoreak, soldaten arabera doitutako lan-produktibitatearen maila baxuena erregistratu du (% 115,1), baldin eta *Kokea eta petrolio-fintzea* sektorea alde batera uzten bada (negatiboa izan du).

Euskal AEko industriaren adierazle ekonomiko nagusiak, sektorearen arabera (A64). Mila €. 2020

	Pertsona enpleguak NU	Negoio kopurua	Balio erantsia	Pertsonal gastuak	Itxurazko lan- produktibitatea	Pertsonal- kostuak pertsonako	Soldaten arabera doitutako lan- produktibitatea (%)
Ateratze-industriak	418	106.792	32.964	20.447	78,9	48,9	161,2
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	14.762	3.877.137	808.531	486.475	54,8	33,0	166,2
Ehunen industria, janziak egitea, larruaren eta oinetakoen industria	2.354	183.073	63.762	46.376	27,1	19,7	137,5
Eguraren eta artelazkiaren industria, altzariak izan ezik; otargintza eta espartzugintza	3.878	539.307	170.785	123.151	44,0	31,8	138,7
Paperaren industria	3.746	1.172.994	309.301	191.344	82,6	51,1	161,6
Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreproduktzioa	3.555	286.443	121.938	98.417	34,3	27,7	123,9
Kokeak eta petrolioak flintzen	990	3.497.321	-99.891	92.825	-100,9	93,8	-107,6
Industria kimikoa	3.953	1.243.615	386.038	207.228	97,7	52,4	186,3
Botiken fabrikazioa	932	344.028	168.555	55.601	180,9	59,7	303,2
Kaubu produktuen eta plastikoen fabrikazioa	13.599	2.927.319	962.767	609.834	70,8	44,8	157,9
Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa	4.917	915.514	329.303	223.936	67,0	45,5	147,1
Metalurgia, burdinazko, altzairuzko eta burdin aleaziozko produktuen fabrikazioa	15.828	4.861.552	962.390	818.806	60,8	51,7	117,5
Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoen salbu	50.838	6.849.334	2.614.259	2.088.962	51,4	41,1	125,1
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	6.666	937.303	331.870	253.189	49,8	38,0	131,1
Material eta ekipoen elektrikoaren fabrikazioa	9.036	1.762.954	520.404	398.233	57,6	44,1	130,7
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	22.228	4.563.296	1.444.763	1.072.624	65,0	48,3	134,7
Ibilgailu motordunen, atoen eta erdiatoien fabrikazioa	12.216	5.004.733	822.015	605.000	67,3	49,5	135,9
Beste garraio material baten fabrikazioa	7.335	2.509.021	625.435	452.274	85,3	61,7	138,3
Altzarien fabrikazioa; enufakturako beste industria batzuk	6.702	821.231	304.196	190.889	45,4	28,5	159,4
Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa	7.819	842.531	381.874	331.736	48,8	42,4	115,1
Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura	2.154	4.675.803	1.315.834	178.854	610,9	83,0	735,7
Ura hartu, araztu eta banatzea	1.412	290.301	148.275	71.934	105,0	50,9	206,1
Hondakin urak hartu eta tratatzea; hondakinak bildu, tratatu eta deuseztatzea	5.361	794.092	347.737	211.445	64,9	39,4	164,5

Iturria: Eustat. Industriaren gaineko inkesta

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62